



xa sencillamente  
transformar la realidad



www.mensajesenredados.com

2016ko ekaina

Begirada soziala Eskolapioen Bilboko kristinaiu alkartetik

# Zentzunezko oporrak

## Oporrak, eskubidea ala gehiegikeria?

Atarian da uda eta, ondorioz, laster da oporraldia! Danok ete daukaguz oporrak? Herrialde guztietan bardin izaten ete dira oporrak?

Bistakoa bada be, gogoratu beharra dago, oporrak izateko nahitaezkoa dala lana izatea edo ikasketak egiten egotea. Eta ondo dakigunez, biztanleriaren zati handi batek ez dau lanik eta ez da ikasten ari.

Beste alde batetik, herrialde batetik bestera aldeak dagoz oporren arauketan. Herrialde batzuetan, ez dago oporrik hartzeko eskubiderik; beste batzuetan, opor-egunak dalako behargin batek lanean daraan denporaren arabera kalkulatzen dira. Opor-egunen kopurua 4 egunetik 35era doa herrialdearen arabera, eta oporrak izateko legea daukien herrialdeetan bakarrik.

Azkenik, ezin da ahaztu mundu guztian erabat hedatuta dagoan ezkutuko lana, hor ez da-eta oporrik izaten.




Hau esanda, lana egiteko edo ikasteko zortea daben personei jagokenez, oporrak historian zehar jadetsitako eskubidea dira. Ahalegina eta desgastea dakarren jardura eten eta atsedean hartzeko aldia dira. "Ekoiztea" helburutzat ez daukien beste era bateko eginkizunetan jardutea be bada.

## Oporrak, aprobetxatzeko

Lanaldian, jardunaldi osoa lanari begira antolatzen dogu. Egoera horregaz alderatuz, oporraldian zer egin hautatzeko aukera gehiago izaten dogu normalean.

Gure gizartean, turismoa industria bihurtu da eta sasoi honetan, egundoko eskaintza-sorta egiten deuskue.

Aurreko udaren bateko mezu kateaturen batean komentatu dogunez, gure oporrak antolatzerakoan be kontsumo arduraturako erispide batzuk jarri beharko doguz.



elrecomendador.es

Oporrak aparteko sasoi dira familiaz eta adiskideez gozatzeko. Izadiaz, irakurketaz, kirolaz gozatzeko, musika entzuteko... sasoi egokia eta aukurakoa.

Sasoi aproposa da, gainera, pentsatzeko, planifikatzeko, hausnartzeko... astia hartzeko (gero eta beharrezkoagoa da-eta).

Boluntario lez jarduteko eta esperientzia solidarioak bizi izateko sasoi be izan daiteke.

## OPORRETARAKO PROPOSAMEN BATZUK

Seguruenik ez zara sasoz ibiliko uda honetan honako ekimenen bat garatzeko, aldez aurretik pentsatuta ez badaukazu behintzat. Baina aurkeztu egingo deusuguz, pentsatzen hasi zaitezzen ia interesgarriak izan daitezkezan datorren udari begira, zeure burua prestatzeko denpora gehiago izanda:

- **Oporraldi honetan, hartu zure etxean, horren beharra dauan neska edo mutikoa.** Zehazki, badagoz leku bi, non arrazoi desbardinengaitik, herritarrei luurraldetik kanpo oporraldia igarotea komeni jaken: Chernobil eta Sahara. Hainbat erakunde arduratzen da antolaketaz:

- <http://asociacionchernobilekartera.blogspot.com.es/>
- <http://vacaciones-en-paz.blogspot.com.es/>

Oporretan zure etxea zabaldu daikezu eta, holan, bizimodu hobe eskaini deikezu beharizanen bat daben umeei.



- **Lan-kanpamentuan parte hartu:** lan solidarioaren esperientzia bizi oporraldian. Aprobetxatu oporrak, batez be behartu- enen aldeko boluntario lanaren esperientzia izateko. Erakunde ugari egiten ditu honako proposamenak:

- **Itaka-Eskolapioak:** [www.itakaescolapios.org](http://www.itakaescolapios.org)
- **Adsis:** <http://fundacionadsisbizkaia.org/>

- **Egun batzuez, erretiro espirituala egin:** aukerako sasoa da gure ohiko bizitzan geldialdia egiteko eta egun batzuez espiritualtasunean hazteko.

- Suesako hirukoiztarrak: <http://www.monjasdesuesa.org/>
- Inaziorenak: <http://www.espiritualidadignaciana.org/>
- Taize: <http://www.taize.fr/es>
- Yoga erakoak: <http://www.laperezosa.com/>



- Sasoi egokia izan daiteke, baita be, hegoaldeko herrialderen batean jarduten dauan erakunde batean parte hartu eta **esperientzia solidarioaren bat izateko hegoaldeko herrialde batean.**

- GKEen Euskadiko Koordinadora: <http://www.ongdeuskadi.org/eu/colabora.php>

**Gozatu atsedendiaz apaltasunez, nasaitasunez, patxadaz, soseguz... Dastatu lasai-lasai eta jakinaren gainean...**

### Hona hemen udarako proposamena:

- Paseoa emon zeuk bakarrik mendian, hondartzan edo urian
- Prestatu bazkaria etxean edo piknik-gune batean eta konbidatu lagunak. Jatekoaren bidez, maitasuna erakutsi
- Joan gau batez izarrei begiratzera. Bakarrik ala norbaitegaz. 'Vivac' eginez lo egiteko be aprobetxatu daikezu
- Barau-eguna egin (udako otorduak orekatzeaz batera, esperientzia interesgarria izango dozu)
- Atzera itzitako artikuluak irakurri
- Kursoan zehar ikusi ezin izan dozuzen pelikulak, dokumentalak... ikusi
- Besarkatu zuhaitzak, etzun bedarrean, bainatu errekan edo itsasoan...

